

133/18 PRENTSA OHARRA

15KM + 5,5 KM-KO OINEZKO LASTERKETA DBUS-EKO AUTOBUS LINEEN GELTOKIEN LEKUALDAKETAK

Urriaren 21ean, igandean, egingo den 15 Km + 5,5Km-ko Oinezko Lasterketa dela-eta, Dbus autobus linea batzuetan aldaketak egongo dira 9:30etik 12:15era gutxi gorabehera. Horregatik, **ondorengo autobus zerbitzuak dohainik izango dira:**

- 9:30etik 11:00etara: 8, 9, 13, 14, 29, 31, 33, 37 eta 42 lineak.

- 9:30etik 12:00etara: 16, 19, 23, 32 eta 36 lineak.

Hurrengo lineetan aldaketak egongo dira:

➤ **5-BENTA BERRI eta 25-BENTA BERRI-AÑORGA LINEAK**

- **Antiguo alderantz**: hasierako geltokiak Santa Katalina zubian egongo dira. Boulevardeko, Londres Hoteleko eta La Perlako geltokiak kendu egingo dira, eta Santa Katalina Zubira edo Iparreko Geltokira eramango dira. Zumalakarregiko eta Tolosa Hiribideko geltokiak Matia kalera eramango dira.

- **Erdialderantz**: Tolosa Hiribideko, Zumalakarregi Hiribideko eta Ondarretako geltokiak kendu egingo dira eta R.M. Azkue kalera eta Zarautz Hiribidera eramango dira. San Martin kaleko 57eko, Artzain Oneko, Okendoko eta Boulevardeko geltokiak Santa Katalina Zubira edo Iparreko Geltokira eramango dira.

Errotaburutik Antiguora joan nahi duten erabiltzaileek Errotaburu-Antiguo lotura zerbitzuak hartuko dituzte (doakoa).

➤ **18-SEMINARIOA LINEA**

- **Antiguo alderantz**: Gipuzkoa Plazako, Zubietako eta La Perlako geltokiak kendu eta Santa Katalina Zubira edo Iparreko Geltokira eramango dira.

- **Erdialderantz**: San Martin 57ko, Artzain Oneko, Okendoko eta Gipuzkoa plazako geltokiak kendu eta Santa Katalina Zubira edo Iparreko Geltokira eramango dira.

➤ **16-IGELDO LINEA**

10:00etatik 12:00etara.

16 lineak ez du zerbitzurik emango Gipuzkoa plazaren eta Ondarreta aldearen artean.

Erdialdetik Pio Barojara (Sanserreka, zerbitzurik gabe) mugitu nahi duten erabiltzaileek Antiguo alderantz doazen ohiko zerbitzuak har ditzakete (5L eta 25L), horiek denak Amaratik eta saihesbidetik ibiliko direlako Matia kalera heltzeko. Toki horretatik aurrera bidaiariek Satrustegi Hiribideraino joan daitezke oinez, eta Jose Maria Satrustegiko geltokian (Ezeiza) lotura zerbitzua hartu.

IGELDOko zerbitzuak: Jose Maria Satrustegi kaleko geltokitik (Ezeiza) Igeldoko auzoa Antiguoko auzoarekin lotura zerbitzuak egongo dira.

➤ **17-GROS-AMARA-MIRAMON LINEA**

- **Gros alderantz:** Madrid Hiribidea 17 eta 3 (helmuga muntatzen eta desmuntatzen ari diren bitartean) eta Antso Jakituna 33 geltokiak Pio XII parkeko behin-behineko geltokira lekualdatuko dira, Eustasio Amilibian jiratu ondoren. Iparragirre geltokia Mirakruz kalera eramango da eta Zurriola Kursaal geltokia Zurriola 36ra.

- **Amara alderantz:** Bilbo plaza Iparreko Geltokira eramango da. Mendeurrenaren plaza, Antso Jakituna 12 eta Antso Jakituna 28 II geltokiak Pio XII.eko autobus geltoki zaharrera lekualdatuko dira.

➤ **8-GROS-INTXAURRONDO LINEA**

9:30etik 11:15era.

- **Erdialderantz:** Colón pasealekuraino baino ezingo da iritsi. Bukaerako geldialdia Pinudi-Mirakruz 14an egingo du (29 linearen geltokian)
Geltoki hauek kenduko dira: Askatasunaren Hiribidea 6 eta Boulevard.

- **Intxaurren alderantz:** Pinudi-Mirakruzetik Galtzada Nagusirantz joango da, eta handik Zurriolarantz eta Nafarroa Hiribiderantz.
Boulevard eta Askatasunaren Hiribidea 19 geltokiak Pinudi-Mirakruz geltokira eramango dira. Iparragirre geltokia Mirakruz kalera eramango da eta Zurriola Kursaal geltokia Zurriola 36ra.

➤ **9-EGIA-INTXAURRONDO LINEA**

9:30etik 11:15era.

- **Erdialderantz:** bukaerako geldialdia Santa Katalina zubian egingo du.
Geltoki hauek kenduko dira: Euskadi plaza, Askatasunaren Hiribidea 6 eta Boulevard.

- **Intxaurren alderantz:** Santa Katalina zubitik aurrera ohiko ibilbidea egingo du.
Geltoki hauek kenduko dira: Boulevard eta Askatasunaren Hiribidea 15.

➤ **29-HEGO INTXAURRONDO SUR LINEA**

9:30etik 11:15era.

- **Erdialderantz:** Colón pasealekuraino baino ezingo da iritsi. Bukaerako geldialdia Pinudi-Mirakruz 14an egingo du.

Geltoki hauek kenduko dira: Zurriola eta Boulevard.

- **Intxaurrondo alderantz:** Pinudi-Mirakruzetik aurrera ohiko ibilbidea egingo du.

Geltoki hauek kenduko dira: Boulevard eta Askatasunaren Hiribidea.

➤ **13-ALTZA eta 14-BIDEBIETA LINEAK**

9:30etik 11:15era.

- **Erdialderantz:** Lapurdi plazatik/Galtzada Nagusitik aurrera Colón pasealekuan sartuko da, eta Mirakruzen bukaerako geldialdia egingo du.

Geltoki hauek kenduko dira: Zurriola, Boulevard, Askatasunaren Hiribidea 6 eta Gipuzkoa plaza.

- **Altza eta Bidebieta alderantz:** Pinudi-Mirakruzetik aurrera ohiko ibilbidea egingo du.

Geltoki hauek kenduko dira: Boulevard, Gipuzkoa plaza eta Askatasunaren Hiribidea.

➤ **19-AIETE-BERA BERA LINEA (mikrobusarekin)**

- **Erdialderantz:** Aiete 1etik aurrera San Rokeetik jaitsiko da Easo plazaraino, 36 lineak egin ohi duen moduan.

Geltoki hauek kenduko dira: Marianistak, Artzain Ona, Okendo eta Gipuzkoa plaza. Autonomia kalera eramango dira.

- **Aiete alderantz:** bukaerako geldialdia Autonomia kalean egingo du (36 linearen geltokia). San Rokeetik eta Belokatik igoko da (36 linearen ibilbidea) La Cumberraino, eta handik ohiko ibilbidea egiten jarraituko du.

Gipuzkoa plaza, Urbieta 6 eta San Bartolome 10 geltokiak Autonomia kalera eramango dira. Londaitz geltokia La Cumbreira eramango da.

➤ **23-ERRONDO-PUIO ETA 32-PUIO-ERRONDO LINEAK**

Joan-etorri guztiak 32 linearen ibilbidean egingo dira, honako ibilbide honekin:

- **Errondo alderantz:** Autonomia kaletik aurrera San Rokeetik eta Belokatik igoko dira (36 linearen ibilbidea) La Cumbreira iritsi arte, eta Lazkano pasealekutik Amarako bidea hartuko dute. Katalina Eleizegitik eta Puiotik igoko dira eta San Juan de Dioseraino iritsiko dira.

Geltoki hauek kenduko dira: Urbieta 6, Urbieta 38, Mendeurrena, Pio XII eta Errondo pasealekua. Autonomia kalera eramango dira.

- **Erdialderantz:** San Juan de Diosen buelta eman ondoren, Errondoko Gainetik itzuliko dira, Borroto kalea, Etxadi eta Aiete pasealekua, La Cumbretik igarota, eta gero San Raketik jaitsiko dira Easo plazaraino.

Geltoki hauek kenduko dira: Collado, Antso Jakituna, Easo eta Urbieta. Autonomia kalera eramango dira. Katalina Eleizegi 1, Katalina Eleizegi 13 eta Katalina Eleizegi 25eko geltokiak hona eramango dira, hurrenez hurren: Katalina Eleizegi 2, Katalina Eleizegi 34 eta Katalina Eleizegi 48.

➤ 21-MUTUALITATEAK-ANOETA ETA 46-MORLANS LINEAK

9:20etik 12:30era.

Errondo pasealekutik, Morlans-etik eta Mutualitateen aldetik zirkulatu ezin izango denez, **linea hauen zerbitzuak kendu egingo dira.**

Alde hauetatik mugitu nahi diren erabiltzaileek **Amara aldera doazen ohiko lineen zerbitzuak erabili ahal izango dituzte (26L eta 28L).**

➤ 26-AMARA-MARTUTENE LINEA

- **Martutene alderantz:** bukaerako geltokia Santa Katalina zubian egongo da.

Geltoki hauek kenduko dira: Boulevard, Urbieta 6, Urbieta 58, Antso Jakituna 12 eta Antso Jakituna 28 II. Santa Katalina Zubira edo Iparreko Geltokira eramango dira.

- **Erdialderantz:** 9:30etik aurrera honako geltoki hauek kenduko dira: Madrid Hiribidea 5 (helmuga muntatu eta desmuntatu bitartean), Antso Jakituna 11, Easo plaza, San Martin 25, Okendo eta Boulevard. Eta geltoki hauetan egingo dira geldialdiak: Mundaiz zubia, Gernikako Arbola pasealekua, Maria Cristina zubia eta Santa Katalina zubia. Era berean, Pio XII parkean behin-behineko geltoki bat jarriko da. 9:30etik 10:45era gutxi gorabehera Antso Jakituna 35 geltokia Pio XII parkeko behin-behineko geltokira lekualdatuko da.

➤ 28-AMARA-OSPITALEAK LINEA

- **Ospitaleak alderantz:** bukaerako geltokia Santa Katalina zubian egongo da.

Geltoki hauek kenduko dira: Boulevard, Urbieta 12, Urbieta 58, Antso Jakituna 12 eta Antso Jakituna 28 II. Santa Katalina Zubira edo Iparreko Geltokira eramango dira.

- **Erdialderantz:** 7:30etik aurrera honako geltoki hauek kenduko dira: Madrid Hiribidea 19 eta Madrid Hiribidea 5 (helmuga muntatu eta desmuntatu bitartean), Antso Jakituna, Easo plaza, San Martin 25 eta Boulevard. Honako hauek egingo dira: Mundaiz Zubia, Gernikako Arbola pasealekua, Maria Cristina Zubia eta Santa Katalina Zubia. Pio XII parkean behin-behineko geltoki bat jarriko da. 9:30etik 10:45era gutxi gorabehera Antso Jakituna 35 geltokia Pio XII parkeko behin-behineko geltokira lekualdatuko da.

➤ **24-ALTZA-GROS-ANTIGUO-INTXAURRONDO LINEA**

- **Antiguo alderantz:** Pio XII.a kalean hasi eta saihebidia hartu eta Antiguorantz joko du, Lugaritzetik gora egin eta, Pio Barojatik jaisterakoan, Matia, R.M. Azkue eta Zarautz Hiribideraino jarraituko du, azken horretan, Hesperia hotelean hain zuzen, bukaerako geldialdia egiteko. Bilbao plaza geltokia Iparreko Geltokira eramango da. Mendeurrena Pio XIIra lekualdatuko da eta Zumalakarregi Hiribideko geltokiak Matia kalera eramango dira.

- **Larratxo alderantz:** Zarautz hiribidetik aterako da (Hesperia Hotela). Collado geltokia Madrid 10era eramango da. Zumalakarregi eta Tolosa Hiribideko geltokiak Matia kalean eta Zarautz Hiribidean egingo dira.

➤ **27-ALTZA-INTXAURRONDO-ANTIGUO-GROS LINEA**

- **Antiguo alderantz:** Pio XII.a kalean hasi eta Saihebidia hartu eta Antiguorantz joko du, Lugaritzetik gora egin eta, Pio Barojatik jaisterakoan, Matia, R.M. Azkue eta Zarautz Hiribideraino jarraituko du, azken horretan, Hesperia hotelean hain zuzen, bukaerako geldialdia egiteko.

Madrid 3 geltokia zerbitzurik gabe geratuko da eta Pio XII.eko parkera eramango da.

- **Larratxo alderantz:** Zarautz hiribidetik aurrera (Hesperia Hotela) Lugaritzetik igoko da Melodiraino. Handik Lugaritzetik jaitsiko da berriro, eta Errotaburuko biribilgunetik saihebidia hartuko du Pio XII.ean ateratzeko eta ohiko ibilbidea egiteko.

Zumalakarregi eta Tolosa Hiribideko geltokiak Matia kalean eta Zarautz Hiribidean egingo dira. Collado geltokia Antso Jakituna 33ra eramango da.

➤ **31-INTXAURRONDO-AIETE-OSPITALEAK LINEA**

- **Aiete-Ospitaleak alderantz:** Zurriola, Boulevard, Urbieta 6 eta San Bartolome geltokiak zerbitzurik gabe geratuko dira. Colón pasealekura edo Iparreko Geltokira eramango dira. Londaitz geltokia La Cumbreira lekualdatuko da.

- **Intxaurren alderantz:** Geltoki hauek kenduko dira: Marianistak, Artzain Ona eta Askatasunaren Hiribidea 3. Bizkaia pasealekura-Mundaiz Zubira, Gernikako Arbolar, María Cristina Zubira eta Santa Katalina Zubira eramango dira.

➤ **33-LARRATXO-INTXAURRONDO-ANTIGUO-BERIO LINEA**

- **Antiguo alderantz:** Askatasuna 18, Londres Hotela eta La Perla Iparreko Geltokira eramango dira. Zumalakarregi eta Tolosa Hiribideko geltokiak Matia kalera lekualdatuko dira. Pio XII.eko autobus geltoki zaharrea ere geldialdia egingo da.

- **Larratxo alderantz:** Zumalakarregi eta Tolosa Hiribideko geltokiak Matia kalera lekualdatuko dira. San Martin 57, Artzain Ona eta Askatasunaren Hiribidea 3 Santa Katalina Zubira eramango dira.

➤ **35-ARRIOLA-ANTIGUO-AIETE-OSPITALEAK LINEA**

- **Ospitaleetatik Antiguu alderantz:** Pio Barojatik jaisterakoan Matia kalean sartuko da (geldialdia); gero, Resurreccion Maria Azkue kalera joango da (geldialdia). Honako geltoki hauek kenduko dira: Zumalakarregi, Tolosa Hiribidea eta Julianategiko geltokia. Matia kalera lekualdatuko dira.

- **Ospitaleak alderantz:** Honako geltoki hauek kenduko dira: Tolosa Hiribideko eta Zumalakarregi Hiribideko geltokiak Zarautz Hiribidera eramango dira.

➤ **36-SAN ROKE-ALDAKONEA LINEA**

Linea bitan bereiziko da.

- **San Roke aldea:** Autonomia kaletik Matia kalera bitan bereiziko da.

Honako geltoki hauek kenduko dira: Euskadi plaza, Askatasunaren Hiribidea 20 eta Urbieta. Autonomia kalera eramango dira.

- **Aldakonea aldea:** Honako geltoki hauek kenduko dira: Easo plaza, Easo 9 eta Askatasunaren Hiribidea 19. Santa Katalina Zubira lekualdatuko dira.

➤ **37-RODIL-ZORROAGA LINEA**

- **Zorroaga alderantz:** Lapurdi plazatik Colón 17an egingo du geldialdia eta Iparreko Geltokiraino joango da ohiko ibilbidea berreskuratzeko. Zurriola eta Gipuzkoa Plaza geltokiak Colón pasealekura eta Iparreko Geltokira eramango dira.

- **Rodil alderantz:** Antso Jakitun kalean hasi eta Mundaiz Zubian, Gernikako Arbolan eta Maria Cristina Zubian egingo ditu geldialdiak. Easo plazako, Easo 9ko eta Askatasunaren Hiribideko 21eko geltokia kendu egingo dira eta Askatasunaren Hiribidea 3ra eramango dira. Helmuga desmuntatu arte Madrid Hiribidea 19 geltokia Pio XII parkera lekualdatuko da.

➤ **42-ALDAPA-EGIA LINEA**

9:30etik 11:15era.

- **Erdialderantz:** Galtzada Nagusitik aurrera Colón pasealekua, Frantzia pasealekua, Maria Cristina zubia eta Foru pasealekua igaroko ditu, azken geldialdia Santa Katalina zubian egiteko.

Geltoki hauek kenduko dira: Kursaal eta Boulevard.

-**Aldapa alderantz:** Santa Katalina zubitik aurrera ohiko ibilbidea egingo du. Geltoki hauek kenduko dira: Boulevard eta Askatasunaren Hiribidea 15.

➤ **45-ESTACIONES RENFE-BUS GELTOKIAK-ANTIGUO-AIETE**

- **Antiguo alderantz:** geltoki hauek kenduko dira: Askatasuna 18, Londres Hotela eta La Perla. Iparreko Geltokira eta Pio XII.eko autobus geltoki zaharrear egingo dira geldialdiak. Zumalakarregiko eta Tolosa Hiribideko geltokiak Matia kalera eramango dira.

- **Erdialderantz:** ohiko ibilbidea egingo da Errotabururaino eta saihesbidetik Pio XII.era. Pio XII.etik aurrera, Gernikako Arbola pasealekutik (17 linearen geltokietan geldialdiak eginda), Foru pasealekutik, Santa Katalina zubitik eta Geltokietatik ibiliko da. Tolosa Hiribidea, Zumalakarregi Hiribidea eta Ondarreta geltokiak Matia kalera eramango dira. San Martin 57 eta Artzain Ona geltokiak Foru pasealekura lekualdatuko dira.

Errotaburutik Antiguora joan nahi duten erabiltzaileek Errotaburu-Antiguo lotura zerbitzuak hartuko dituzte (doakoa).

Lasterketak aurrera egin ahala lineak ohiko ibilbideak egiten hasiko dira.

Informazio gehiagorako, deitu 943 000 200 telefonora, edo www.dbus.eus webgunean.

